



## II. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### Bizkaiko Garraio Partzuergoa

**Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateko tasak arautzen dituen zerga-ordenantzaren aldaketaren behin betiko onespeneraren iragarkia.**

«Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei Bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateagatiko Tasak arautzen dituen zerga-ordenantza»-ren hasierako onespenera, 2023ko azaroaren 8ko 214 enbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, espedientea jendaurrean egon da hogeita hamar (30) eguneko epean. Aurkeztutako alegazioak Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak ebatzi zituen 2023ko abenduaren 26an egindako bilkuran, eta, ondorioz, behin betiko onartutako Ordenantzari erantsitako aldaketen testua argitaratu zen:

#### **BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN TITULUEN ERABILTZAILEEI BIDAIARI-GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA-ORDENANTZA**

##### XEDAPEN IRAGANKORRA

Hiri barruko eta hiriarteko lurreko garraio publiko kolektiboa sustatze aldera, ibilgailu partikularra baino garraibide segurua, fidagarriago, erosoago, ekonomiko eta iraunkorrago batera aldatzea sustatuz, ordenantza fiskal honen 4.1 eta 4.2 artikuluetan jasotako zerga-kuotak %50 murriztuko dira 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko urtarrilaren 13ra bitarteko aldirako.

Aurreko neurriaren indarraldia amaituta, hau da, 2024ko urtarrilaren 14tik 2024ko abenduaren 31ra arte, biak barne, ordenantza fiskal honen 4.1 artikuluan jasotako zerga-kuotak %20 murriztuko dira.

Bilbon, 2023ko abenduaren 26an.—Zuzendari Nagusia, Roberto Muñoz García